

berriak

Triforio

-tik



araba
álava



Elizpea "Poetak Maiatzean" ekimenarekin beteko da berriro

Mexikori eskainita egongo den Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Poesia Jaialdiaren XI. edizioak lau emanaldi garrantzitsu bilduko ditu Katedralean maiatzaren 7, 13, 14 eta 25ean.

Maiatza poesiaren sinonimoa da Arabako hiriburuan, eta, beste behin ere, Santa Maria Katedralak Vitoria-Gasteizko "Poetak Maiatzean" Nazioarteko Poesia Jaialdiaren zenbait emanaldi hartuko ditu bere elizpean. Lehenengo emanaldia maiatzaren 7an izango da, igandean, eta Elisa Rueda, Jaialdiko zuzendaria, eta Honorino García, musikagilea, soinu-artista eta artea eta teknologia uztartzen dituzten sistemen diseinatzailea, izango dira protagonista. "El Tiempo Deshabitado" izeneko emanaldia 19:00etan hasiko da eta berak egindako musika-tresnak erabilita Honorino García eta Elisa Ruedaren poemetan oinarrituta gauzatu dituen soinu bariazioak izango ditu ardatz, poetaren hitzek lagunduta.

Maiatzaren 13an eta 14an "Gu gabe ere" eta "Poesía en clave de sol" emanaldien txan-

da izango da, hurrenez hurren. Larunbateko emanaldia euskaraz izango da, 19:30ean. Bertan, Iztar Ugarte Irizarren testuak eta Mikele Landa Eigurenen ikus-entzunezko elementuak uztartzen dituen "Gu gabe ere" poema liburua taularatuko da. Igandean, hilak 14, arratsaldeko 19:00etan, 'Poesía en Calve de Sol' emanaldiaren txanda izango da, Kanajazz-ekin. Udaberria Musika Eskolako 'Combo de adultos' taldeak eta hiru poetek (Idoia Carramiñana, José Manuel Ta-

rriño eta Janire Martínez) musika eta poesia uztartuko dituzte.

Azken emanaldia maiatzaren 25ean, ostegunean, izango da, 11:00etan. "Harresiak Apurtzen" izenburupean, Ramon Bajo ikastetxeko ikasleek errezitaldia emango dute Katedralako elizpean, eta horrela emango zaie amaiera Santa Maria Katedralako 'Poetak Maiatzean' emanaldiei. Informazio guztia www.poetasenmayo.com/eu webgunean dago.



“Irekita eta beteta” Aste Santuan

“Obretan eta irekita” programa abian jarri zenetik ohikoa den bezala, Aste Santuko jaiegunetan bisitari-kopuru etengabea eta nabarmena izan da, eta, berriro ere, arreta emateko gehieneko ahalmenetik oso gertu ibili da egun askotan. Oporraldi honetan 3.000 pertsona baino gehiago igaro dira bisitari-zentrotik, egunik jendetsuena izan zen ostiralean, hilaren 7an, batez ere.

Zifra handi horiek agerian uzten dute “Obretan eta Irekita” programaren indarra, eta erreferentziatzko posizioa duela familia-turismoan eta gertuko-turismoan, bai Euskadi mailan, bai inguruan, bai turista gehien jatorria diren gune nagusietan. Estatu mailan, Madril, Katalunia, Valentzia eta Andaluzia izan dira berriro ere. Nazioartean, Frantzia da berriro ere bisitarien jatorri nagusia.



Maiatzean abesbatzak itzuliko dira

Maiatza da, berriro ere, Arabako abesbatzen hilabetea Katedralean. Arabako Abesbatzen Federazioarekin lankidetzan eta Laboral Kutxaren babesarekin, ehunka ahotsez eta haien askotariko errepertorioez gozatzeko aukera eman go duten bost emanaldi programatu dira. Emanaldiak 19:45ean hasiko dira. Sarreraren erosketari buruzko informazioa Fundazioaren webgunean egongo da eskuragarri.

Egitaraua:

Maiatzak 12

Badaya abesbatza, Lautada korala, Amalur abesbatza eta Bihotsak korala.

Maiatzak 19

Haritz Hostoa, Vicente Garcia abesbatza, Ahots Argiak eta Enol korala.

Maiatzak 26

Mairu abesbatza, Florida abesbatza, Gurasoak korala eta Dultzinea korala.

Ekainak 2

Arantzabela, Tantak abestaldea, Kataliturri abesbatza eta Samaniego abesbatza.

Ekainak 16

Maiora Canemus, Oskarbi abesbatza, Gasteizko lagunak eta Erribera Beitia.



Luis Aramburu Musika Eskolako ikasturte amaierako entzunaldiak

Maiatzaren amaieratik ekainaren hasierara bitartean, Santa Maria elizpeak ikasleen ikasturte amaierako zenbait entzunaldi hartuko ditu berriro. Lehenengo kontzertua maiatzaren 31n, asteazkenean, izango da, 19:15ean,

eta piano eta antzinako musika entzunaldia izango da. Hurrengo egunean, ekainaren 1ean, ostegunean, bigarren entzunaldia izango da, ordu berean. Sarrera doakoa da, Eskolan gonbidapena jaso ondoren.